

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Jose Mari Unzueta Sudupe*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1943)*

Aurkibidea



## Biografia



Jose Mari Unzueta 1943an jaio zen Bedoña auzoan (Arrasate), Sakristaukoa deitzen dioten baserri-etxean. Ama azkoitiarra zuen, baina familiari Bedoñara bizitzera joateko aukera eskaini zioten, han eraiki berria zen etxe batera. Ordainetan, elizaren ardura batzuk hartu behar zituzten eta horrela egon ziren, etxea erosi zuten arte. Ingeniaritza ikasi zuen arren, diseinua zen gustatzen zitzaziona eta atzerrian formatu eta gero Fagor Etxetresna Elektrokoetan lanean hasi zen. Bedoñako auzoan beti auzolan handia egon da eta lan asko egin behar izan dute azpiegiturak eta zerbitzuak lortzeko. 60ko hamarkadan Aretxabaletako auzo bat izatetik Arrasateko auzo bat izatera nola pasatu zen kontatzen du. Gaur egun, Bedoñako auzo-alkatea da.

## Zintak

### ARR-191

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-12-02
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Amaren familia Azkoititik Bedoñako Sakristaukora

- **Erref:** ARR-191/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:00:46. **Bukatu:** 00:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

Sakristauko baserri-etxean jaio zen, Bedoña auzoan. Elizako ardura batzuen

kargua hartzeko sortutako etxea da. Amaren familiak hartu zuen etxearen kargu eta Azkoititik Bedoñara joan ziren bizitzera .

## 2. Aitak lana aldatu zuen, lan-baldintza eskasengatik

- **Erref:** ARR-191/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

Aita okina zen Arrasaten, baina lan-baldintzak ez zirenez onak (adibidez, ez zuen Gizarte Segurantzarik), lana utzi eta "Unión Cerrajera"n hasi zen lanean .

## 3. Sakristauaren lanak Bedoña auzoan

- **Erref:** ARR-191/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

Sakristau moduan egiten zituzten lanak: ordularia zaindu, ateak zabaltu... Meza egoten zen egunero. Apaiza Bedoñan bertan bizi zen senide batekin eta hark egiten zituen elizako lanetako asko. Handik urte batzuetara, erreterotatu zirenei etxea erosteko eskubidea ematen zien lege bati esker, etxea erosi ahal izan zuten. Ordurako elizako martxa ere gutxituta zegoen eta sakristau lanak egiteari utzi zioten.

## 4. Bedoña auzotik San Viator eskolara oinez egunero

- **Erref:** ARR-191/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

### Laburpena:

Arrasaten hasi zen eskolan, San Viatorren, fraideekin. Gaur egun ikastolaren eraikina da. Oinez joaten zen eskolara, beste aukerarik ez zegoen eta.

## 5. Bedoña auzoaren historia

- **Erref:** ARR-191/009
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bedoña auzoaren historia aspaldikoa da. Erdi Aroan gaztelu bat zegoen, gaur egun eliza dena, eta oraindik ikus daitezke gazteluaren egituraren arrastoak. Aretxabaletako auzoa izan zen 1966 arte, baina gertutasunagatik Arrasaterekin izan du beti harremana: eskolarako, erosketetarako, lanerako... Bedoñatik Aretxabaletara 7 kilometro daude eta dena baso-bidea da.

**6. Bedoñan auzotasun handia; auzolana**

- **Erref:** ARR-191/011
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bedoña auzoan aberastasun handia egon da, batez ere auzotasunagatik. Aretxabaletan egon arren, harreman gutxi zuten Aretxabaletarekin eta Arrasatek, berriz, ez zien ezer ematen, ez zirelako Arrasatekoak. Hori dela eta, auzolanean egin behar izan zituzten gauza asko, esaterako, Arrasaterako bidea.

**7. Bedoña auzoa: administratiboki Aretxabaletatik Arrasatera pasatzeko bidea**

- **Erref:** ARR-191/012
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:16:24. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bedoña auzokoek administratiboki Aretxabaletatik Arrasatera pasatzeko zer bide egin behar izan zuten. Urteetako borroka izan zen. Azkenean Madrilera joan behar izan ziren eta ministro-kontseiluaren bitartez lortu zuten Francok aldaketa sinatzea 1966an. Hara iristeko bidean asko lagundu zientetako bat Azkoitiko Udala izan zen. Bedoña auzoa eredu izan dela dio, bizitzeko tokatu zaion egoera kaskarrei irtenbidea ematen jakin duelako; nortasun handikoa.

**8. Bedoña auzoko etxeetara ura eramateko tramiteak**

- **Erref:** ARR-191/013
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:26:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Auzorako hainbat zerbitzu auzolanari esker lortu zituzten, esaterako baserri guztietara ur edangarria eramatea. Gatzagako Udalari esker jakin zuten Madrilen bazirela diru-laguntza batzuk. Tramite ugari egin behar izan zituzten, besteak beste, auzokoen elkarteak sortu. Donostiako Gobernu Zibilean esan zieten Egia auzokoak euren antzera zebiltzala eta haien eredua jarraituz lortu zuten elkarteak sortzea eta Madrilgo diru-laguntza jasotzea. Tramiteetarako garrantzitsua da bidelagun onak aurkitzea.

**9. Bedoña auzoko baserriak**

- **Erref:** ARR-191/014
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:26:16. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Garai batean 22 baserri ziren Bedoña auzoan, baina bi galdu dira (bata erreta eta bestea jausita). Ez da baserri berririk egin, baina lehengo 22 baserriak 32 etxebizitza edo familia dira orain.

**10. Bedoñako auzo-batzordea**

- **Erref:** ARR-191/015
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bedoñako auzo-alkatea da. Ardura guztiak pertsona bakar baten esku egon ez zitezen, lau laguneko batzorde bat sortu zuten. Lau urtetik behin batzordeko kideak aldatzen dira. Batzordeko kideek bilerak egiten dituzte hilero.

**11. Bedoñako eskola itxi ostean, umeak kotxeetan eskolara**

- **Erref:** ARR-191/016
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Garai batean auzoetan eskolak egiteko aukera sortu zen eta Bedoñan ere hainbat urtez izan zuten eskola. Gerora, eskolak bateratzeko lege bat etorri zen eta itxi egin zuten. Hasieran auzo-taxi antzeko zerbitzu bat jarri zuten, baina berehala kendu zuten, eskola nazionalerako bakarrik zelako, ikasleentzako ez. Ordutik gurasoak antolatzen ziren umeak garraiatzeko. Koskortutakoan ere buelta asko egin behar izan dute seme-alabekin, baina beraien erabakiz bizi direla han azpimarratzen du.

**12. Bedoña auzoko jaiak**

- **Erref:** ARR-191/018
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:39:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

**Laburpena:**

Abenduaren 10ean ospatzen dituzte Bedoña auzoko jaiak. Santa Eulalia de Merida da auzoko zaindaria. Garai batean elizkizunek zuten indarrik handiena. Egunean bertan izaten zen ospakizuna. Gaur egun ez da erraza ezer antolatzea, "negu-negua" izaten delako eta edozer gauza antolatzeko, babestutako lekuetan izan behar delako. Ospakizuna agian beste data batera aldatu beharko luketela dio.

**13. Bedoñako parrokia eta Andramarizuriko ermita**

- **Erref:** ARR-191/020
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:39:04. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena:**

Bedoñako elizak parrokia izaera duenez, auzokoen hiletak bertan egin izan dira beti. Gaur egun gutxitu egin dira elizkizunak, ezkontza eta bataio gutxiago dagoelako. Bedoña erdigunetik aparte samar Andramarizuri baserriaren ondoan ermita bat dago, inguruetakoa zaharrenetakoa. Lehortea zegoenean, hara oinez joan eta hango amabirjina ekartzen zen Bedoñara, errezoak egin eta euria eskatzeko.

**14. Bedoñako parrokiako erlojuaren makinaria**

- **Erref:** ARR-191/022
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

#### **Laburpena:**

Bedoñako parrokiako erlojuaren makinaria ondare bat zela dio, Arrasaten eskuz egina baitzen. Pot egin zuenean, makinaria elektronikoa jarri zen. Kanpai-mota batzuk ere bertan txertatu zituzten eta aukera zuten kanpaiak programatzeko edo eskuz jotzeko, botoi bati emanda. Gaur egun auzokoen whatsapp taldearen bitartez pasatzen dituzte abisuak.

### **15. 'Loramendi' poeta Bedoñan jaioa; haren omenezko plaka**

- **Erref:** ARR-191/024
- **Iraupena:** 0:05:23. **Hasi:** 00:50:09. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Kultura » Idaztea

#### **Laburpena:**

`Loramendi' poeta Bedoñan jaio zen. Fraide sartu zen. Hasieran gaztelaniaz idatzi arren, gero euskaltzale amorratua izan zen eta euskaraz idatzi zuen. Bere lan gutxi daude, gazterik hil zelako. Bedoñan omenaldia egin zioten, hil aurretik irabazitako sariengatik, eta plaka bat jarri zuten haren omenez. Gerra sasoian plaka hori apurtu nahi izan zuten, erdian lauburu bat zuelako. Auzotarrek plaka bere lekutik kendu eta Aretxabaletara eraman zuten babeslekuren batera. Urte luzez desagertuta egon ostean, plaka berreskuratu zuten eta, 37 urteren ostean, berriz jartzea lortu zuten.

### **16. 'Loramendi'ri bere jaiotetxean egindako omenaldia**

- **Erref:** ARR-191/025
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:57:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

#### **Laburpena:**

Artean `Loramendi' poetaren ama bizi zela, hainbat euskaltzalek omenaldia egin zion bere jaiotetxean. Jende asko bildu zen, tartean jende ezaguna, esaterako, Bitoriano Gandiaga. Omenaldi haren inguruko kontuak. Handik urte batzuetara erabaki zen garai batean `Loramendi'ren omenez jarritako plaka berreskuratu beharra zegoela eta hainbat euskaltzale aritu ziren lanean hori.

### **17. Aretxabaletaren lotura 'Loramendi'rekin**

- **Erref:** ARR-191/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:57:34. **Bukatu:** 00:58:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Gaur egun ez da egiten `Loramendi´ren omenezko ekitaldirik. Aretxabaletan haren omenezko plakaren erreplika dago kalean ipinita eta izen hori daraman Kultur Elkartea ere badago. Garai batean Bedoña Aretxabaletakoa zenez, Aretxabaletak beti izan du `Loramendi´ren inguruko interes handiagoa Arrasatek baino.

**18. Bedoña auzoaren inguruko liburua**

- **Erref:** ARR-191/030
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Gaztetan ez zuen izan aukerarik gauza asko bizitzeko eta gerora piztu zaio hainbat kontu jakiteko interesa. Bedoña auzoaren inguruko informazioa biltzen ibili da, dena liburu batean jasota uzteko. Bedoñako auzotasuna. Mutikotako oroitzapenak. Igande arratsaldeetan bezperak egoten ziren. Auzoko gizonezkoek bilera modukoa egiten zuten eta han erabakitzen ziren kontu garrantzitsu asko.

**19. Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko liburua**

- **Erref:** ARR-191/031
- **Iraupena:** 0:05:58. **Hasi:** 01:04:11. **Bukatu:** 01:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko liburuxka bat prestatu du. Bedoñan ez da egon eraikin erromanikorik. Hipotesi batek dio Arabako herrixkaren batetik etorriak direla bertako aztarnak, agian Bedoñako parrokiaren eta hainbat baserriren jabe zen Gebarako kondearen bitartez. Bedoñan aurkitu daitezkeen aztarna erromanikoak zeintzuk diren eta horien inguruko hipotesiak azaltzen ditu. Erakusketa bat ere prestatu dute.

**20. Bedoña auzoko ondarearen berri emateko interesa**

- **Erref:** ARR-191/034
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:12:00. **Bukatu:** 01:14:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

Behin parrokoak ezin zuela eta bera joan zen Bedoña auzoko bisita gidatu batera, elizako atea zabaltzera. Orduan konturatu zen bisitetan okerreko informazioa ematen zela, esaterako eraikin erromanikoak egon zirela auzoan. Horregatik hasi zen informazioa biltzen eta prestatzen, jendeari auzoko ondarearen berri emateko. Ezkutuan dagoen ondarea erakutsi ahal izateko, panelak jarri dituzte.

## 21. Bedoñako aztarna erromanikoen inguruko ikerketak

- **Erref:** ARR-191/035
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

Hainbat historialari ibili dira Bedoñako aztarna erromanikoak ikertzen. Inguruetan egon zen eliza erromaniko bakarra Aretxabaletan zegoen San Migel de Bedarreta zen. Gaur egun hilerria dago eliza hura zegoen lekuan eta hilerriko sarrera erromanikoa da. Pentsa zitekeen harriak handik eramán zirela Bedoñara, baina ikerketek ezetz diote. Harrigarria da harriak Arabatik ekarri izana, baina hori dio hipotesi nagusiak.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-11-14*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com